

Ordena z.  
Nº orden

# HEZIKETA ZIKLOETARA SARTZEKO PROBA PRUEBA DE ACCESO A CICLOS FORMATIVOS

**Goi Mailako Zikloak / Ciclos de Grado Superior**

*Atal komuna / Parte común*

## Euskara eta Literatura

---

<b>NAN / DNI</b>		<b>Izena / Nombre</b>	
<b>Abizenak / Apellidos</b>			
<b>Sinadura / Firma</b>			

2022ko apirila / abril de 2022





## ETIKETAK

Ahaztu dudan poeta bati irakurri nion, gauzei lehen aldian bezala begiratzeko ahalmenean zetzala begirada poetikoaren berezitasuna, munduarekiko lehen kontaktuan haurrek daukaten harriduraren antzeko zerbait hori, nolabait esan.

Mundua ezagutu ahala, galdu egiten dugu gaitasun hori. Zerbait izendatzen dugun unetik txikitu egiten da zerbait horren ñabardurak topatzeko aukera, izendapenak irudi finko batera garamatzalako, gure baitan eraiki dugun kontzeptura, eta interesera. Zertarako egingo dugu bere izaeran gehiago arakatzeko ahalegina, jadanik zer den baldin badakigu?

Mundua izendatzeko etiketak ere erabiltzen ditugu. Baina, azalpen luzeen energia aurrezten laguntzen badute ere, ez ditugu guri buruzkoak sobera maite. Kalifikatu egiten gaituzte, definizio sinplifikatzaile eta estereotipatuen bidez kalifikatu ere, eta betikotasun zentzu bat daukate, aldaketaren aukera ezinezko dela ematen duena aditzera, zeharka. Ustez garen horren definizioa egitean, izan behar garenaren profetia ere egiten da, guganako espektatiba bat ezartzen. Pisu dira.

Pertsonen arteko harremanak etiketatzeko joera ere badugu, erlazio moten araberrako sailkapena egitekoa. Eta harreman batean gertatzen denaren azalpen deskriptiboa emateko helburuarekin baizik egiten ez bada ere (ahizpa, ama, laguna, irakaslea, amorantea, bizilaguna, lankidea, edo bikotekidea) hor ere saihestu beharrekoa litzateke etiketen erabilera, tituluak karga handiegia duelako gure jokamoldean, harremanen forma estandarizatuen eta estereotipatuen arabera erlazionatzera eramaten gaituena. Kasik oharkabean, harreman mota horren forma arautuan jokatu dugu, horrantz jotzen baitute beti gure jokabide automatikoek, erreakzio inkontzienteez eta oharkabeko pentsamenduez. Pertsona batekin dugun harremanean, lotura mota zein den baino erabakigarriagoa izan beharko luke elkarrekin zer bizi nahi eta ahal dugun sentitzea, horren arabera elkarrekin eta geure neurria diseinatu ahal izateko erlazioaren forma.

Edonon ikus daiteke etiketek gugan duten zamaren pisua. Amatasunaz damutu diren emakumeen kasuan, esaterako, sozialki ezarria den ama-rol zorrotza seinalatzen dute haietako askok, beren bizipen arazotsuaren arrazoi. Badute seme-alabekiko lotura, jada existitzen diren neurrian oso maite dituztelako, nola ez. Baina aitortzen dute nahiago zuketela rol estereotipatik atera ahal izan balira, eta bestela erlazionatu seme-alabekin.

Harreman mota estandarizatuek, gainera, asko eragozten dute pertsonekin sakonki topatu ahal izatea. Eskola munduan, adibidez, maiz gertatzen da ezberdin erlazionatzea ikasleekin ikasgela barruan ala kanpoan, nahi baino gehiagotan irensten duelako rolak pertsona, eta roletik zaila delako nor garen hartzea aintzat, zer garen baino gehiago.

Harreman afektiboena da, beharbada, honek guztiak gehien eragiten duen esparrua. Gerta liteke, adibidez, lotura eta harreman on batean seguritatea sentitzeko zailtasuna edukitzea, etiketa zehatz batek definitzen ez duelako erlazioa, zer diren argi ez dagoelako, alegia. Edo intimitate sexuala konpartitze hutsagatik, harreman baten gidoia erabat aldatu behar dela sentitzea, prestigioa eta bereizgarri hegemonikoa ematen duen bikote-etiketa gorena bezalako tentazioagatik.

Agian, lagunaren artekoa da karga sozial gutxien duen erlazioa, gutxien araututa dagoena. Bada, eman diezaiozun lagun etiketa gure maite-sareko jendeari. Hobe biziko gara? Libreago, behintzat.

Ablanedo Larrion. Argia. 2021eko azaroa.

Egokitua.



1. Zeren arabera diseinatu beharko litzateke pertsonen arteko erlazio forma idazlearen ustez? (0,5p)
  
2. “Zerbait izendatzen dugun unetik txikitu egiten da zerbait horren ñabardurak topatzeko aukera”. Azaldu zeure hitzak erabiliz zer esan nahi duen idazleak esaldi horretan.(gehienez 50 hitz).(0,5p)
  
3. Aukeratu egokia testuaren arabera. (0,25p)
  - a. Sozialki ezarria den ama-rol zorrotza dela eta, seme-alabekiko lotura dute zenbait emakumek.
  - b. Sozialki ezarria den ama-rol zorrotza dela eta, emakume batzuen kasuan, amatasunaz damutu dira.
  - c. Amatasunaz damutu ez diren emakumeen kasuan, arazoak izan dituzte ama-rola dela eta.
  
4. Atera testuaren gaia (gehienez 15 hitz) (0,5p)
  
5. Egin testuaren laburpena (gehienez 75 hitz) (1p)



6. Aukeratu egokia testuaren arabera. (0,25)
- Eskola munduan, askotan rola pertsona baino gehiago izaten da, eta errazagoa da nor garen kontuan hartzea zer garen baino.
  - Eskola munduan, askotan pertsona rola baino gehiago izaten da, eta errazagoa da zer garen kontuan hartzea nor garen baino.
  - Eskola munduan, askotan rola pertsona baino gehiago izaten da, eta errazagoa da zer garen kontuan hartzea nor garen baino.
  - Eskola munduan, askotan pertsona rola baino gehiago izaten da, eta errazagoa da nor garen kontuan hartzea zer garen baino.
7. Eman testuko hitz hauen sinonimo bana. (0,5p)
- |              |               |
|--------------|---------------|
| a. Ahalmen:  | f. Jokatu:    |
| b. Pisu:     | g. Beharbada: |
| c. Izendatu: | h. Saihestu:  |
| d. Aukera:   | i. Esparru:   |
| e. Maiz:     | j. Zailtasun: |
8. Berridatzi testuko esaldi hauek aldaketa morfosintaktikoak eginez, horretarako erabili parentesi arteko forma, adibidean bezala. (1p)
- Ad.: Kasik oharkabeen, harreman mota horren forma arautuan jokatu dugu, horrantz jotzen baitute beti gure jokabide automatikoen **-(e)lako**  
Kasik oharkabeen, harreman mota horren forma arautuan jokatu dugu, horrantz jotzen dutelako beti gure jokabide automatikoen
- Mundua ezagutu ahala, galdu egiten dugu gaitasun hori. **-(e)n neurrian**
  - Zerbait izendatzen dugun unetik txikitu egiten da zerbait horren ñabardurak topatzeko aukera. **-(e)z geroztik**
  - Azalpen luzeen energia aurrezten laguntzen badute ere, ez ditugu guri buruzkoak sobera maite **(arren)**
  - Hor ere saihestu beharrekoa litzateke etiketen erabilera, tituluak karga handiegia duelako gure jokamoldean **-(e)nez gero**
  - Ustez garen horren definizioa egitean, izan behar garenaren profetia ere egiten da. **-(e)nean**



9. Atzizki/aurrizki hauek kontuan hartuz, sortu bina hitz gehiago atzizki berberarekin, adibidean bezala: (0,5p)

Ad. BEREZITASUN: batasun, askatasun

- a. IZAERA:
- b. HARRIDURA:
- c. ARAZOTSU:
- d. SAILKAPEN:
- e. ALDAKETA:

10. IDAZLANA: **IRITZI ARTIKULUA** (idatzi 200 hitz inguru) (5p)

GAIA: **GAZTEAK ETA HARREMANAK**

Gaztea zara, idatz ezazu iritzi-artikulu bat zure herriko edo auzoko aldizkari baterako, gazteen harremanei buruz. Nahi izanez gero honako gidoi hau erabil dezakezu:

- Azken aldi luze honetan, pandemiak gure harremanak ulertzeko moduan eta egiteko moduan eragina izan du (lagunekin, senideekin, ... online komunikatzea, pertsona taldeak espazio publikoetan eta pribatuetan elkarteari mugak jartzea, herrietako jaiak eta hainbat ekitaldi bertan behera geratzea, ...).  
Azal ezazu zure ustez zer gertatu den, eta nolakoak izango diren pandemiaren ondorengo gizartean gazteen arteko erlazioak.
- Teknologia berriek gazteen harremanetan duten garrantzia.
- Teknologia berriek gazteen arteko harremanetan duten eragina. Pertsona helduek esaten dute gazteek gero eta gutxiago hitz egiten dutela elkarren artean, teknologiak (sakelako telefonoa, ...) sortzen duen dependentzia dela eta.
- ...



